

Zerbitzu Orokor Nagusiko kudeatzaile arduradunen postuen eginkizunen edukia

Kudeatzaile arduradunak, zerbitzu-zuzendaritzarekin lankidetzan, zerbitzuan lan egiten duten langileak antolatu, kudeatu eta koordinatuko ditu, dela zuzenean langile horiei dagokienez, dela jarduteko protokoloek ezartzen dituzten talde funtzionalak koordinatuz, dela zuzendaritza-postuetan aritzen direnek emandako jarraibideen bitartez.

Halaber, esparru prozesalean, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoari legez dagozkion eginkizunak beteko ditu.

Eginkizunak:

- Zerbitzu horren zuzendariari laguntza ematea zerbitzu hori antolatu, planifikatu, ikuskatu eta kudeatzeko lanetan, eraginkorragoa izan dadin.
- Zerbitzu-zuzendariaren jarraibideei jarraituz, zerbitzu horri atxikitako langileen jarduera eta zereginen banaketa zaintzea eta koordinatzea; ondo garatzen direla, informazio-sistemek ondo funtzionatzen dutela eta hirugarrenekin eta bulego judizialeko beste zerbitzuekin harreman egokia dutela bermatzea.
- Kalitate-adierazleak proposatzea, jarraipena egitea eta aldizka ebaluatzea.
- Justizia eta Giza Eskubideen Saileko organo eskudunekin lankidetzan aritzea, antolaketa-arloan eta giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzeko arloan dituzten zereginetan.
- Fitxategien eta erregistroen eguneratzea kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Zerbitzuko zuzendariari estatistika judiziala egiten laguntzea.
- Zerbitzuko zuzendariaren jarraibideei jarraituz, honako hauek ikuskatzea eta koordinatzea:
 - Gaiak eta idazkiak jaso, erregistratu eta banatzea.
 - Komunikazio-egintzak eta betearazpen-eginbideak kudeatzea.
 - Bulego judizialaren zerbitzu guztiei zeharkako zereginetan laguntzea.
 - Efektuen gordailuaren kudeaketa, artxiboen kudeaketa, posta-zerbitzua, helbidea lortzeko lanak, espedienteak eta dokumentuak lekualdatzeko zerbitzua.
 - Jendeari, profesionalei eta auzilariei arreta ematea.



- Apud acta ahalordetzeak.
 - Zehaztapenak, bideokonferentziak, bista-aretoak eta ekipamendu teknikoak kudeatzea, eta Instantzia Auzitegiko presidenteari dagozkion bulego judizialeko zerbitzuei laguntzea.
- Indarrean dauden legeek, erregelamenduek eta antolaketa-arauek Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoari esleitzen dizkioten eginkizunak.